



# ERAKUSKETA MITOLOGIAK MUNDUA KONTATU

Louvre eta Quai Branly - Jacques Chirac museoren  
ezohiko 60 mailegurekin

**BONNAT-HELLEU MUSEOA**  
**07/08 - 11/09/2026**

Partaidean



MUSÉE DU QUAI BRANLY  
JACQUES CHIRAC

# PRENTSA OHARRA

## PUNTU AZKARRAK

- Aldi baterako lehen erakusketa Bonnat-Helleu museoan 2025eko azaroan berriro ireki zenetik.
- Jendaurrean aurkeztutako ehun lan artefaktu arkeologikoak, pinturak eta eskulturak uztartuz, Historiaurretik XX. mendera arte, sorkuntza garaikideekin batera.
- Louvre museoarekin batera antolatzea, bi erakundeak batzen dituen partaidearen baitan, Baionan lehen aldiz aurkeztutako 40 obra nagusiren maileguarekin, tartean Raphaëlen San Jurgi, Errenazimenduko maisulana.
- Quai Branly – Jacques Chirac museoaren aparteko parte-hartzea, mundu guziko 20 obra baino gehiago maileguan.
- Pireneko mitologiaren (euskalduna eta gaskoiarra), klasikoen (mesopotamiarra, egiptoarra, grekoa eta erromatarra) eta mundu osoko mito handien arteko elkarrizketa (Mexiko, Mendebaldeko Afrika, Japonia, Ozeania).
- Marrazkien errotazio berria eta ibilbide iraunkorraren berrirakurketa hau kontuan hartuta museo bizi eta etengabe berritzen den aldi baterako erakusketa.

Erakusketa hau Bonnat-Helleu Museoak ekoitzi du, Musée du Louvre -eko Museoarekin lankidetzan eta Quai Branly – Jacques Chirac-Museoaren aparteko elkarlanarekin.



MUSÉE DU QUAI BRANLY  
JACQUES CHIRAC

### Erakusketa arduradunak :

**Benjamin Caule eta Barthélemy Etchegoyen Glama (Bonnat-Helleu museoan), François Bridey eta Dominique de Font-Réaulx (Louvre museoan).**

# ERAKUSKETAREN LABURPENA

**Bonnat-Helleu Museoa berriz ireki zenetik lehen aldi baterako erakusketa: «Mythologies» erakusketak gizateriaren historian zehar pasatu diren kontakizun fundatzaile handiak elkarrizketan ezartzen ditu, Egipto faraonikoetik Japonia modernora, eta Grezia klasikotik Euskal Herriko mendietara. Louvre museoarekin lankidetzan eta Quai Branly – Jacques Chirac Museoaren aparteko parte-hartzearekin sortua, erakusketa honek garai eta kontinente guzietako ehun obra inguru biltzen ditu.**

Nola sortu zen mundua? Zein indar daude bertan? Nola lortzen dute heroiek haren patua aldatzea? Hauek dira gure mitoek erantzuten saiatzen diren funtsezko galderak. Mundua azaltzeko, ezezaguna uxatzeko edo giza egoera pentsatzeko sortuak, kontaktuzun hauek zirkulatzen dute, eraldatzen dira eta elkarri erantzuten diote; hainbestearino, non espazioan eta denboran urrun diren kulturek oso antzeko irudi eta istorioak irudikatzen baitituzte. « Mythologies » erakusketak elkarrizketa berri bat proposatzen du irudi eta istorio horien artean; bertan, lehen aldiz elkartzen dira Pirinioetako munduak, Mediterraneoko tradizio handiak, Hurbileko Ekialdekoak, baita Mexikokoak, Ozeaniakoak eta Afrikakoak ere.

Louvre Museoa eta Bonnat-Helleu Museoak, haien arteko lankidetzaren baitan, ibilbide bat irudikatu dute Pirinioetako mitologiak beste herri askotakoekin lotzen dituzten motiboak—askotan oso zaharrak—aurkitzeko. Hegazti-emazteak edo laminak, Tartalo ziklopea, gizon basatiak edo basajaunak, greziar jainkoen aurka borrokan ari diren Titanekin gurutzatzen dira, baita Ulises Penelope berriz aurkitzen duena edo Herkules bere hamabi lanak betetzen dituela ere, nahita irekitako eszenografia batean, kalidoskopio formakoa. Louvre-eko bederatzi kontserbazio-departamentuetatik zazpik (Ekialdeko Antzinateak, Egiptoko Antzinateak, Antzinako greziar, etrusko eta erromatarrak, Islama-ren Arteak, Bizantzioko Arteak eta Ekialdeko Kristauak, Eskulturak eta Margolanak) eta, bereziki San Jurgi ospetsuak Rafaelen herensugearen kontra, Italiako Errenazimentuko maisulanaren kontra, emandako maileguei esker, zibilizazioen artean sortzen diren gurutzatze-puntu anitz dira.

Quai Branly – Jacques Chirac Museoaren aparteko parte-hartzeak erakusketaren diskurtsoa are gehiago zabaltzen du, mundu osoko kulturetara irekiz: Maliko ciwara maskara batek Homeroren bustoarekin topo egiten du; aztaken lumadun sugea, Quetzalcoatl, Oô harrian irudikatutako Pirinioetako kondairako suge-emaztearekin solasean aritzen da; eta Nô antzerkiko japoniar maskara batek Zuberoako maskaradako Hartza-ren jantziarekin auzoan egiten du.

«Mitologiak» ere gure mito handiei buruz hitz egiten segitzen du bere irudikapen ga-raikideetaraino. Roland Barthes baionarrak erakutsi zuen bezala: mitoak ez dira iragane-ko kontua. Beren kontakizunetan agertzen diren heroien bidez, sortzen dituzten muns-tro eta deabruek pizten duten beldurraren bidez, edo fenomeno misteriotso batzuei ematen dizkieten jatorrien bidez, kontakizun handi hauek gure irudimena egituratzen segitzen dute eta gure begirada elikatzen dute, gaur egungo literatura, zinema edo bideo-jokoetaraino ere.

Erakusketa aldi baterako erakusketa-gelan garatzen da, baina baita ibilbide iraunkor-raren baitan ere; bereziki, museoko bilduma aberatsean hautatutako marrazkien txan-daketa batekin: Rubens, Van Dyck, Poussin edo Géricaulten obrak, modu berezian jen-daurrean aurkeztuko dira.

Erakusketa hau 2025 eko bukaeran berriz irekitako Bonnat-Helleu Museoaren irudira egina da: garai guzietako maisulan handiak, guzientzat irisgarria den bisita bat, non emozioa eta aurkikuntzaren plazera diren ibilbidearen ardatz, lurraldeari begira baina irismen unibertsala duena. «Mitologiak» erakusketa programa kultural aberats batekin lagundua izanen da, erakusketa museoaren baitan zein kanpoan biziartzeko.




1. Saint Georges luttant avec le dragon, 1503 / 1505  
Raphaël, Raffaello Santi, dit  
Musée du Louvre, département des Peintures  
© 2004 Musée du Louvre, dist. GrandPalaisRmn / Jean-Gilles Berizzi

2. Horus cavalier, 200 / 399  
Lieu de découverte : Faras (?)  
Musée du Louvre, département des Antiquités égyptiennes  
© 2016 Musée du Louvre, dist. GrandPalaisRmn / Hervé Lewandowski



3. Héraclès et le lion de Némée -750 - 480 av. J.-C.  
Lieu de découverte : Pyrgos  
Musée du Louvre, département des Antiquités orientales  
© 2013 Musée du Louvre,  
dist. GrandPalaisRmn / Christophe Chavan

# PRENSA IRUDIAK



4. Haxeria, Owantshoozi, 2026  
© Owantshoozi  
  
5. Diane, Gustave Doré, 1876  
Musée Bonnat-Helleu © photographe Alexandra Vaquero

6. La Femme au serpent, Bagnères-de-Luchon, entre 1101 et 1200  
Musée des Augustins, Toulouse © photographe Daniel Martin  
  
7. El Santo, Pista Arena Revolucion, ciudad de Mexico, Lourdes Grobet, 1980  
Musée du quai Branly - Jacques Chirac

8. Sculpture anthropozoomorphe: Quetzalcoatl-serpent, 1325-1521  
Musée du quai Branly - Jacques Chirac  
  
9. Masque porté lors des danses de wayang topeng figurant le singe  
Hanoman, 19e siècle  
Musée du quai Branly - Jacques Chirac

# INFORMAZIO PRAKTIKOAK

## **ERAKUSKETA DATAK**

**Uztailaren 8tik azaroaren 9a arte**

## **HELBIDEA**

**Bonnat-Helleu Museoa**

**5 Jacques Laffite karrika**

**64100 Baiona**

## **ORDUAK**

**Idekia 10h tik 19h arte astezkenetik astelehenerat eta 12h tik 21h arte ostiraletan  
Hetsia asteartean**

**Informazio gehiago [www.mbh.bayonne.fr](http://www.mbh.bayonne.fr)**



## **Kontaktua:**

**Arantxa Vaillant**

**Garapen zuzendaria**

**[a.vaillant@bayonne.fr](mailto:a.vaillant@bayonne.fr)**

**06 07 83 85 14**

Bayonne\*  
BAIONA-PAYS BASQUE

**B** Musée  
Bonnat  
Helleu  
— B A Y O N N E